



Bergarako
Udala

**BERGARAKO UDALAREN ETA GOIENA KOOPERATIBAREN
ARTEKO HITZARMENA,
EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK
LANKIDETZAZ ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO**

Bergaran, 2023ko azaroaren 29an

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Udalburua, Udalaren ordezkari izan.

Eta bestetik, Monika Belastegi Aranzabal andrea, GOIENA kooperatibako Lehendakaria, kooperatibaren ordezkari izan.

Bi aldeak, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta zera

AZALTZEN DUTE

Etorkizuneko Informazioaren Gizartean, garrantzi handia du hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabazteak, euskal gizartearen ezaugarri propioei kopuruz nahikoa eta kalitatez duina izango den presentzia ziurtatu ahal izateko.

Hain zuzen, GOIENA kooperatibak, Debagoieneko euskara elkarteek bultzatuta sortu denak, eskualdean euskarazko komunikazio zerbitzuak abiatzea eta garatzea du helburu, informazioaren arlo tradizionalak nahiz berriak jorratuz, giza kohesioaren alde, inolako lukuru asmorik gabe, eta administrazioekin lankidetzan.

Lankidetzaz hori bideratzeko eskumena ematen die 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei bere 7. artikuluko 5. puntuan:

Toki-erakundeei euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

Gauzak horrela, lankidetzari jarraipena eman eta honako Goienak eta Bergarako Udalak honako hitzarmena sinatzea erabaki dute:

KLAUSULAK

Lehenena: Hitzarmen honetan GOIENA kooperatibaren eta Bergarako Udalaren arteko 2022. urteko lankidetzaz zehazten da, Goiena Telebista eta Goiena aldizkaria hedabideei dagokienez.

Bigarrenena: GOIENA kooperatibak 2023. urtean eskainiko dituen eskualderako komunikazio zerbitzuak, Goiena Telebista eta Goiena aldizkaria, 122.722 euroz lagunduko ditu, Bergarako



Udalak Goienaren paperezko aleak argitaratu eta banatu ahal izateko, eta Goiena telebista emititu eta Bergaran ikusi ahal izateko.

Hirugarrena: Bergarako Udalak, hilabete bakoitzaren bukaeran egingo ditu ordainketak, hileko honakoa kopurua ordainduaz: 10.226,83 euro.

2024ko hasieran urteko hitzarmena zehaztu barik balego, onartu daitekeen diru laguntzaren kontura 10.226,83 euro/hileko ordainduko dizkio Udalak GOIENARI erabakia hartu eta hitzarmena sinatu arte, eta orduan egokitzapenen bat egin beharra balego egingo da.

Bestalde, GOIENAK onartzen du baldin eta udalak 2024ko aurrekontuan onartutako dirulaguntza txikiagoa balitz jadanik kontura Udalak ordaindutakoa baino, diru hori itzuli egin beharko duela Udalak zehaztutako epean.

Laugarrena: Bergarako Udalak GOIENA kooperatibaren jarduna eta diru kontuak barrutik ezagutu ahal izango ditu. Hau ziurtatzeko, aurreko urteko gastuen zuriketa eta auditoria eta ekintzen memoria aurkeztuko dizkio kooperatibak Bergarako Udalari, hurrengo urteko lehen seihilekoan.

Bosgarrena: GOIENA kooperatibaren hedabideetan Bergarako Udalaren laguntzaren iragarpena toki nabarmenean agertuko da.

Seigarrena: GOIENA kooperatibak genero-ikuspegia txertatuko du eskaintzen dituen komunikazio-zerbitzuetan, komunikazio ez-sexistaren irizpideak bereziki zainduz. Horretarako, ekintzen memorian, garbi jasoko du, komunikazio-zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeko zein neurri hartu diren: publizitatean, emakumearen presentzia bermatzerakoan, edukien trataeran, formazio planean... Aldi berean, Goiena kooperatibako langileen arteko harremanetan, langile eta bezeroen artekoetan zein beste zerbitzu edo pertsonetikikoetan berdintasunezko tratua bermatzeko neurriak hartuko ditu.

Zazpigarrena: Bergarako Udalak ez du bere gain hartzen hitzarmen honetan espresuki agertzen ez den erantzukizunik.

Zortzigarrena: Goiena kooperatibak hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu, kontratu hau bukatutzat emango du Udalak eta ordaintzeko geratzen diren dirulaguntzaren zatiak ez ditu ordainduko.

Bederatzigarrena: Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Bergarako Udalaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Hamargarrena: Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Dirulaguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Dirulaguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamaikagarrena: Bergarako Udalak diru laguntzaren zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Hamaikagarrena: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, eta Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra aplikatuko dira.



Horrela jasota gera dadin eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

Gorka Arfola Alberdi
Bergarako Alkatea



Monika Belastegi Aranzabal
GOIENako lehendakaria



